

**BIDE PUBLIKOA OKUPATZEKO  
LIZENTZIA EMATEKO  
PROZEDURA LABURTUA**

**ERREGISTRO OROKORRA**

SARRERA:		IRTEERA:	
DATA:		DATA:	
ESP.:			

ESKATZAILEA:		NAN:		Tel:	
ORDEZKARIA:		NAN:		Tel:	
HELBIDEA (jakinarazpenetarako)					
OKUPAZIOAREN KOKAPENA:					
<b>PROPOSATUTAKO OKUPAZIOAREN KROKISA ATZEALDEAN ZEHATZEKO</b>					

<b>OBRETARAKO EDUKIONTZIA</b>					BAI	EZ
Azalera	m <sup>2</sup>	Denbora	egun	<b>KROKISA BEHARREZKOA</b>		
<b>PLATAFORMA JASOTZAILEA EDO PAREKOA</b>					BAI	EZ
Azalera	m <sup>2</sup>	Denbora	egun	<b>KROKISA BEHARREZKOA</b>		
<b>4 METRO BAINO GUTXIAGO-ALTUERAKO ALDAMIO</b>					BAI	EZ
Azalera	m <sup>2</sup>	Denbora	egun	<b>KROKISA BEHARREZKOA</b>		
<b>4 METRO BAINO GEIHAGO-ALTUERAKO ALDAMIO</b>					BAI	EZ
Azalera	m <sup>2</sup>	Denbora	egun	<b>ALDAMIOEN ZIURTAGIRI TEKNIKO BEHARREZKOA</b>		
<b>BESTE BATZUK.</b>					BAI	EZ
Azalera	m <sup>2</sup>	Denbora	egun	<b>KROKISA BEHARREZKOA</b>		

ESKATZAILEAREN SINADURA				
Amurrión	(e)ko	ren	(e)(a)n	

<b>UDAL ZERGEN LIKIDAZIOA</b>		
		€
		€
		€
<b>GUZTIRA</b>		€

<b>TXOSTEN TEKNIKO – JURIDIKOARAN ARABERA</b>		Teknikoaren sinadura:
OHARRAK:		
<p>Horiek horrela, txostengileak uste du bidezkoa dela:</p> <input type="checkbox"/> Eskatutako lizentzia ematea eta zergak likidatzea: - Emandako lizentziaren baldintza zehatzak:		
<p><input type="checkbox"/> Eskatzaileari eskatzea atzealdean aipatzen den dokumentazio osagarria aurkezteko.</p> <input type="checkbox"/> Eskatutako lizentzia ez ematea, arrazoi hauek direla eta:		

<b>EBAZPENA</b>	
Vista la anterior solicitud, y visto el informe emitido por el técnico correspondiente, de conformidad con lo previsto en el Art. 63 y ss., de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de este Municipio, y demás concordantes de la Ley del suelo, se le comunica que esta Alcaldía ha RESUELTO:	
<input type="checkbox"/> Eskatutako lizentzia ematea, baldintza partikularrekin eta, bidezkoa bada, dokumentu honetan zehaztutakoekin bat etorritz.	
<input type="checkbox"/> Eskatutako lizentzia ez ematea, arestian aipatutako txostenean adierazitako arrazoi tekniko eta/edo juridikoak oinarri gisa hartuta.	
<input type="checkbox"/> Eskatzaileari eskatzea gehinez ere 15 eguneko epean aurkez dezala dokumentuaren atzealdean adierazitako dokumentazio osagarria. Epea igarota hori egin ez badu, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, eta jarduketak artxibatuko dira, horretarako ebazpen bat eman behar izan gabe.	
Amurrión	ko ren (e)(a)n Alkatearen sinadura:

Izen-abizenak: .....	Jatorrizkoa jaso nuen
NAN. ....	
Amurrión, (e)ko	aren (e)(a)n

## BIDE PUBLIKOAREN PROPOSATUTAKO OKUPAZIOAREN KROKISA

### DOKUMENTAZIO OSAGARRIA

- Bide publikoaren okupazioaren krokisa. Mota (edukiontzia, hesiak, plataformak...).
- 4 metrotik beherako aldamiok instalatzea: *kokapenaren krokisa; kokapena oinplanoan, azalera, neurriak eta okupazio-aldia adierazita, eta gertu dauden hiri-altzarien kokapena adierazita.*
- 4,00 metrotik gorako aldamio, karga-jasogailu eta antzekoak instalatzea. *Ikus-onetsitako ziurtagiri teknikoa, planoak eta aurrekontua jasotzen dituen. Aldamioak babes-sarea izango du garaiera osoan, eta goialdean babes-bisera edo erretilua edukiko du. Galtzadaren gainean gelditzen den kasuetan, gutxieneko altuera 4,00 m-koa izango da, eta oinezkoak igarotzeko bidea oholzarekin estaliko da lan eremuaren azpian. Okupazioaren iraupena adieraziko da.*
- Bide publikoan arriskua eragiten duten lanak: *obrak egiten diren artean bide publikoa babestuta dagoela bermatzeko hartu beharreko segurtasun-neurrien krokisa eta/edo azalpena.*
- Erantzukizun zibileko aseguruia (*gutxienez 150.000 €-koa*).
- Beste batzuk: .....

### BALDINTZA OROKORRAK

- a) Eskatzaileak bide publikotik ikus daitekeen toki batean jarri beharko du Udalak, lizentzia ematean, emango dion baimen kartela.
- b) Bide publikoa okupatu baino lehen, Udal Zerbitzu Teknikoei jakinaraz gainean jarriko zaie, lurraren gainean dagokion zuinketa egiteko.
- c) Udal Zerbitzu Teknikoek eta Udaltzaingok emandako oharpenak aintzat hartuko dira momento guztietan.
- d) Bide publikoaren okupazioaz gain aparkalekuak gordetzea behar izanez gero, Udaltzaingoiari ohartaraziko zaio gutxienez bi egun baino lehen, beharrezko baimena aurkeztuz.
- e) Lizentziak jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenei kalterik eragin gabe ematen dira.
- f) Sustatzailea izango da ondasun zein zerbitzu publikoei eta hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteen erantzule.
- g) Debekatuta dago materialak eta obra-hondakinak bide publikoan pilatzea.
- h) Kasuan kasuko kalean aukera badago, aldamiok erabat itxiko da 2,00 m-ko garaierara arte, eta oinezkoak alboko korridore batetik igaroko dira. Horrela jokatu ezin bada, lan-eremuaren azpialdean oinezkoentzako igarobidea oholzarekin estaliko da eta babes-bisera jarri, materialak eta beste elementu batzuk bide publikora erortzea saihesteko. Igarotzeko gutxieneko neurriak: 1,10 m zabal eta 2,20 m garai. Aldamioen mutur banatan aparkatzea debekatzeko seinaleak jarriko dira, eta multzo osoa behar bezala seinaleztatuko da egunez eta gauez. Aldamioak babes-sarea izango du, materialak kanporantz ateratzea ekidite aldera.
- i) Obrak gauzatu bitartean, bete egingo da segurtasunaren eta osasunaren inguruan indarrean dagoen araudia, elementu osagarriak jarri eta kentzean zein zamalanak egitean.
- j) Larrialdi-ibilgailuen igarotzea behar izanez gero, eta zamatzeko eta hustuketa lanak egiteko, berehalaxe erraztuko da igarotzea.
- k) Behin bide publikoaren okupazioa bukatuz gero, behar den apaindura eta garbitasun egoeran utziko da eremua.

### ORDAINTZEKO BIDEAK

Zerga zorra bide hauetako bat erabiliz ordainduko da:

- a) Legezko dirua
- b) Txeki adostua, Amurrioko Udalararen izenean
- c) Diru-sarrera egitea Amurrioko Udalararen izenean dauden banku-kontu hauetako batean:
  - \* Kutxabank ES53 2095-3258-25-1095221015
  - \* Caja Rural de Navarra ES89 3008-0214-10-3266020720
  - \* Laboral Kutxa ES21 3035-0089-10-0891029050

### ERREKURTSO ESKAINTZA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke zuzenean Administrazioaren Auzietarako Gasteizko Epaitegiaren aurrean, BI HILABETEKO epean, jakinarazpena jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Bestela, aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke ebazpen hau eman duen organo berberaren aurrera, HILABETEKO epean, jakinarazpena jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita; hala, horren berariazko edo ustezko ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioaren Auzietarako aipatu Epaitegiaren aurrean, BI HILABETEKO epean berraztertze errekurtsoa gaitzesteko ebazpena jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, edo SEI HILABETEKO epean, errekurtsoa ustez gaitzesten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Zerga-likidazioko egintza hau behin betikoa da administrazio bidean; halere, berraztertze errekurtsoa jar dezakezu horren kontra, Udal honetako Alkatezaren aurrean, HILABETEKO epean, jakinarazpen honen egunetik aurrera zenbatzen hasita (2/2004 LEDeko 14.2 art. eta 7/85 Legeko 108. art.). Dena den, bidezkoztat jotzen duzun beste edozein errekurtso edo ekintza abiarazi ahal izango duzu. Berraztertze errekurtsoa jarri gero eta HIRU (3) HILABETE igarotzen badira ebazpena jakinarazi gabe, errekurtsoa gaitzetsi dela ulertuko da. Halaber, ustezko ezezkoaren aurrean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango duzu Administrazioaren Auzietarako Gasteizko Epaitegiaren aurrean (Gasteiz hiribidea 18 -Justizia Jauregia-), SEI (6) HILABETEKO epean, berraztertzea gaitzetsi dela ulertu behar den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

**GARRANTZITSUA:** errekurtsoa jartzeak ez du kobratze gozko prozedura geldiaraziko, interesdunak zerga-zor osoa estaltzen duen bermea aurkeztu ezean.

### ORDAINTZEKO EPEA

Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 61.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz:

- a) Administrazioak egindako likidazioen ondoriozko zerga-zorrik daudenean, hilabeteko epean ordaindu beharko dira, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.
- b) Egun horretatik aurrera, % 20rainoko gainordaina ezarriko da, zorraren zenbateko osoaren gainean.